



GORA TELOIA!

Antzerkia ikastetxeetan egiteko gida



Uzt. 01 - Uzt. 02 2024

Kod. K06-24

Mod.:

Online zuzenean Aurrez aurrekoa

Edizioa

2024

Jarduera mota

Uda Ikastaroa

Data

Uzt. 01 - Uzt. 02 2024

Kokalekua

Miramar Jauregia

Hizkuntzak

Euskara Gaztelera

Balio akademikoa

20 ordu

Antolakuntza Batzordea

Fundación
BBVA



Azalpena

Ikastaro honen bidez **Gora Teloia! Antzerki gida** partekatu nahi dugu, ikastetxeetan edo neska mutilekin lanean ari diren irakasle edo monitoreei antzerkia erabiltzeko tresnak eskaini nahi dizkiegu, antzerkia modu baikor eta baliogarrian egin ahal dezaten.

Sorkuntza geroz eta garrantzitsuagoa den garai hauetan, antzerki eta hezkuntza alorrean eskarmentua duten profesionalen eskutik haien esperientziak partekatu nahi ditugu.

Besteak beste, honako gai hauek izango ditugu gogoan:

- Antzerkiaren garrantzia hizkuntza lantzerakoan, sorkuntzan, baloreen lanketan, inklusioan, elkar-lanean,...
- Nola prestatu urte osoko lana: nondik hasi eta nola iritsi jarri den helbururaino, bidean galdu gabe.
- Nola landu antzerki mota ezberdinak: zirkoa, pailazoa, mimoa, testu antzerkia, esketxak, txotxongiloak...
- Antzerkiaren alderdi guztiak landu: Ahozkotasuna, hizkuntzaren tresna, gorputz adierazpena, jende aurrean agertzea etab.
- Sormena garatzeko tresnak,
- Talde lana egiteko, inklusiorako, baloreak lantzeko, gatazkak bideratzeko... antzerkiaren inguruko tresnak nola erabili
- Eskolako kurrikuluna antzerkiaren bidez landu eta garatu.

Baita ariketak eta jolasez gain, antzezlan bat garatzeko tresnak eskainiko ditugu, eta hori egin ahal izateko urratsak landuko dira. Taldean sortutako antzezlanak ala idatzita dagoen testu bat oinarri izanik.

Aurtengo ikastaroan gainera landuko da antzerkiaren bidez ikasgaiak nola txertatu ikasketetan. Kurrikuluna nola garatu antzerkiaren bidez. Bi irakasle adituren eskutik, esate baterako memoria historikoa nola landu behar den sakonduko da antzerkiaren bitartez. Memoria eta antzerkia, kultura eta historia.

Tresna praktikoak, materiala, antzerki mota ezberdinak, gaiak, baloreak, ariketak, irakurketa...

Antzerkiaren inguruko topiko ezkorrak hautsi! Eta irakurketarako zaletasuna, parte hartzeko gogoia, jakin-mina,... etab berreskuratzea antzerkiaren bidez!

Helburuak

Antzerkia haur eta gazteen artean indartzeko, ikastetxeetan antzerkia sendotzeko eta kurrikulumean sartzeko, horren sustatzaile izango diren irakasle edo monitoreei **tresnak** eskaintzea da ikastaro honen helburu nagusia.

Antzerkiari beldurra galtzea, eskaini ditzaken aukerak ezagutaraztea, eta era berean, antzerkia oso "kontu serioa" dela jabetzea.

Materialak, ariketak, jolasak, etab. partekatu eta **material** horiek errealitate edo behar bakoitzera egokitzeko baliabideak eskaini nahi ditugu.

Irakasleak trebatu nahi ditugu, ikastetxeetan antzerkia txertatzen eta zabaltzen joateko. Eta bereziki hizkuntza, ahozkotasuna, gorputza eta talde lanaz gain, sormena eta emozioak lantzeko, kanporatzeko eta partekatzeke.

Ikas materiala antzerkiaren bidez nola landu, barneratu eta partekatu. Antzerkia jakintzaren trasmisore. Ikerketarako bide.

Lankidetzak



HEZKUNTZA SAILA
DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN



Programa

2024-07-01

- 09:00 - 09:15 Inaugurazio instituzionala. Parte hartzeko ordena:
Aizpea Goenaga Mendiola | Ikastaroaren zuzendaria
María José Tellería | Gipuzkoako Foru Aldundia / Diputación Foral de Gipuzkoa - Kultura Saileko Zuzendaria
-
- 09:15 - 10:30 “GORA TELOIA. Gidaren erabilera eta haratago...”
Aizpea Goenaga Mendiola | Ikastaroaren zuzendaria
-
- 10:30 - 12:00 “GORA TELOIA! Antzerkia eskoletan egiteko tresnak”

Antzerkian murgiltzeko: ariketak eta jolasak
Anartz Zuazua Alvarez | Aktorea zuzendari eta antzerki idazlea
-
- 12:00 - 12:30 Atsedena
-
- 12:30 - 14:00 “GORA TELOIA! Antzerkia aniztasunetik eta anitza “

Antzerkia ikastaro osoan zehar. Sormena eta lankidetzak
Alaitz Olaizola Borda | Zuzendari eta antzerki idazlea
-
- 16:00 - 17:00 “Memoria historikoa eta antzerkia”

Antzerkiaren bidez memoria historikoaren lanketa
Idoia Gereñu Odriozola | Irakasle eta antzerki ikerlaria
-
- 17:00 - 18:00 “Antzerkia eta gure kulturaren historia”

Kurrikuluna antzerkiaren bidez txertatzen
Amaia Elizalde Estenaga | Irakasle, ikerlari eta Laboa Katedraren zuzendaria
-

2024-07-02

- 09:00 - 10:30 “GORA TELOIA! Literatura dramatikoa. Kontakizunak. Sormena.”

Antzerkia: idatzita dagoena eta sortuko duguna
Aizpea Goenaga Mendiola | GORA TELOIA! Antzerki gidaren egilea
-
- 10:30 - 12:00 “GORA TELOIA! Antzerkiaren garrantzia Amara Berri hezkuntza eremuan”
Juan Larrañaga Michelena | Amara Berriko irakasle eta antzerki arduraduna
-
- 12:00 - 12:30 Atsedena

12:30 - 14:00

“GORA TELOIA! Zirkuaren mundura hurbilketa. Zirkua mundu bat”

GORA TELOIA! Zirkoa ezagutu eta egiteko tresnak

Iker Galarza Larrinaga | Aktore, gidoilari eta Gure Zirkoaren sortzailea

14:00 - 14:30

“Materiala, bibliografia eta azken aholkuak”

Aizpea Goenaga Mendiola | GORA TELOIA! Antzerki gidaren egilea

Zuzendaritza



Aizpea Goenaga Mendiola

Aktorea zuzendari eta antzerki idazlea

Aizpea Goenaga (Donostia, 1959). Magisteritzan eta Arte Eszenikoetan diplomatua da eta interpretazioa, zuzendaritza eta dramaturgia ikasketak ditu. Antzerkiko Ikasketa Aurreratueta masterra ere egina da. 1978az geroztik film ugarian nahiz telebistan egin izan du lan aktore, gidoigile edo zuzendari moduan. Antzerki lanak ere argitaratu ditu, baita zuzendu ere, besteak beste, 'Zu(t)gabe', 'Santxa', "Ezker-Eskuma" eta 'La Pecera'. Haur eta gazteentzako antzezlanak ere kaleratu ditu. Sariak ere irabazi izan ditu lan horiei esker, hala nola, Serantes saria, Donostia Hiriko Antzerki saria eta Euskaltzaindiaren Toribio Alzaga saria. 2005ean Atxagaren 'Zeru Horiek' egokitu eta zuzendu zuen eta 2009an 'Sukalde Kontuak-Secretos de cocina' film luzea. 2010etik 2016ra Etxepare Euskal Institutuko zuzendari izan zen. 2017an berriz heldu zien gidoiak eta testuak lantzeari eta zuzendaritza lanari.

Irakasleak




Amaia Elizalde Estenaga

MHLI. UPV/EHU

(Donostia, 1988). Hispaniar Filologian (2011) eta Euskal Filologian (2012) lizentziatu zen Euskal Herriko Unibertsitatean (EHU/UPV) eta mugikortasun programen bitartez egonaldiak egin ditu Mexikoko UNAMen eta Pau-eko UPPAn. Bordeaux-Montaigne (UBM) unibertsitatean Master Recherche Études Basques gauzatu zuen (2013) eta egun doktoregaia da literaturaren alorrean. Ikerketa-proiektua kotutoretzan gauzatzen ari da EHU/UPV eta UMBrekin. Euskal literaturaren 50-60ko hamarkadetako berpizte eta berritze kulturalaren testuinguruan, Jon Mirande XX. mendeko euskal idazle madarikatu paristarra eta bere Haur besoetakoa (1970) eleberriaren analisia nahiz harrera ditu aztergai. Horretarako, 2014an EHUren “Tesiak Euskaraz egiteko Doktorego aurreko Ikertzaileak prestatzeko kontratazioa” jaso zuen.



Iker Galarza Larrinaga



Idoia Gereñu Odriozola

Ehu

EHUn Filosofian lizentziatu eta Madrilgo Carlos III unibertsitatean masterra burutu ostean, Giza Zientzietako Doktore titulua lortu zuen 2016an Jarrai (1959-1968), euskal teatroaren abangoardiako ikur tesiari esker. Azken hamar urteetan 30eko hamarkadatik 70era bitarteko euskal teatroaren inguruan ikerketan aritu da. Zeregin honen ondorio izan dira argitaratu dituen Antzerti 75 urte ondoren (Etor-Ostoa, 2007), Antonio Maria Labaien euskal antzerki gizona (Hamaika Bide elkarte, 2010) eta Gure antzerki idatzia 1936ko erbestealdian (Hamaika Bide elkarte, 2012) lanak. EHAZEko koordinatzaile lanetan aritu zen elkartearen sorreran eta egun bertako zuzendaritza taldean parte hartzen du. Katiuska antzerki taldean zuzendari lanetan dabil, 2013an sortu zenetik. Hezkuntza arloan, Bigarren Hezkuntzan eta Batxilergoan daramatza azken urteak lanean filosofia eta musika irakasten, eskola eta ikastola ezberdinetan.



Juan Larrañaga Michelena



Alaitz Olaizola Borda

https://eu.wikipedia.org/wiki/Alaitz_Olaizola Haur zela hasi zen antzerkia egiten, ondoren Antxieta antzerki tandean aritu zen, eta baita Lakrikun antzerki taldean ere. Helduentzat eta gazteentzat antzerki-tailer ugari eskaini ditu. Orain Azpeitiko Emakumeen Antzerki Tailerra zuzentzen du. 2001ean Toribio Altzaga Saria irabazi zuen, Zereko zera zertzen delako zereko zerarekin, eta 2006an berriz ere, sari hori irabazi zuen Joanes: itxaropenaren semea lanekin. 2004an, Donostia Hiria saria Clitemnestraren itzulera antzerki lanarekin. Telebistan gidoilari lanetan aritzeaz gain, helduentzat eta haurrentzat antzerki ugari idatzi, taularatu eta argitaratu ditu.



Anartz Zuazua Alvarez

Antzertin, Madrilgo W.Layton antzerki laborategian eta Pariseko J. Lecoq antzerki eskolan burutu zituen ikasketak. Musika ikasketak Donostiako Kontserbatorioan burutu zituen. Klarineta eta pianoa dira jotzen dakizkien instrumentuak. Zinema eta bideo ikasketak Andoaingo zinema eskolan burutu zituen. Orduetik zuzendari eta aktore bezala lan egin du antzerkian, telebistan eta zinean. Zurriola Antzerki Eskolaren sortzaileetarikoa izan zen eta bertan zazpi urte eman zituen irakasle. Orain zenbait ikastetxetan dabil antzerkia irakasten. 2012. urtean Borobil Teatroa sortu zuen. 2020. urtean Borobil Teatroa Estudioa zabaldu du, bere lanen sormen espazioa eta antzerki ikasketak eskaintzen diren lekua.

Matrikula prezioak

AURREZ AURRE	2024-05-31 ARTE	2024-07-01 ARTE
Gazte tarifa	25,00 EUR	59,00 EUR
Orokorra	-	84,00 EUR
Matrikula murriztua orokorra	-	71,00 EUR
Matrikula exentzia	-	59,00 EUR
Euskaltegi edo autoikaskuntzarako zentro homologatatuko kide	-	71,00 EUR
Elkar	-	71,00 EUR
Irakasteko ikasten - Eusko Jaurlaritza	-	71,00 EUR
Irakasteko ikasten - Nafarroako Gobernua	-	71,00 EUR

ONLINE ZUZENEAN	2024-05-31 ARTE	2024-07-01 ARTE
Gazte tarifa	25,00 EUR	59,00 EUR
Orokorra	-	84,00 EUR
Matrikula murriztua orokorra	-	71,00 EUR
Matrikula exentzia	-	59,00 EUR
Euskaltegi edo autoikaskuntzarako zentro homologatatuko kide	-	71,00 EUR
Elkar	-	71,00 EUR
Irakasteko ikasten - Eusko Jaurlaritza	-	71,00 EUR
Irakasteko ikasten - Nafarroako Gobernua	-	71,00 EUR

Kokalekua

Miramar Jauregia

Mirakontxa pasealekua 48, 20007 Donostia

Gipuzkoa